



GORA JUBILATUEN ERREBOLUZINOA!

Doinua: "Markosen txarrixe"

1

Urte batzuk badira
jubilau nintzala,
eta bizimodu hau
ez dok, ez, makala!
Juergarako beti da
prest materiala,
ni ondo bizi naz ta
hau dok printzipala.

2

Batean Agate da
bestean Luzia,
guk zaharrok maite dogu
santuen grazia.
Orduan sendatzen da
gatxen desgrazia,
dantzarako ez dago
edade pasia.

3

Ez da bakarrik meza
ta debozinoa,
lehendik dogu Jaunaren
bedeinkazinoa.
Nahizta kaxkarra izan
dogun pentsinoa,
gora jubilatuen
reboluzinoa.



4

Oraindik badaukagu
nahiko apetitu,
errez kargatzen dogu
busti edo siku.
Ondoren dator eztul
edo domistiku,
ez da errez egiten
gure pronostiku.

5

Sarri egiten dogu
noranahi balantza,
baina hara ta hona
ezin gara kantza.
Urte batzutan behintzat
badot esperantza;
artajorra ona da,
hobea da dantza.

6

Martxan jarri gaituna
da Bizian Gora,
ondo bizi nahi badok
ekarrik gogora:
Lehen ere galdu dogu
nahikoa denpora,
batu gaitazan danok
alkarren ondora.

A. Martzel